

Ondarea jaso eta jagon

Bagilearen 14an egingo da Arratiatik Urkiolarako errogatibea

“... Aita San Antoniok barriak egingo ditu” dino koplak zaharrak, eta oinetakoak urrutzeko aukerea izango dabe Arratiako oinezko errogatibaren parte hartu gura dabenean.

Bagilearen 14an, zapatuan, egingo da Urkiolara, Paduako San Antonioren santutegira errogatibea; tradizioa jarraituz, San Antonio egunaren osteko zapatuan izaten da arratiarren errogatiba eguna; lehenago herri bakotzak bere errogatibea antolatzen baeban be, azken urteotan, Arratiako parrokiak guztiak aldi berean joaten dira Urkiolara, bailarako abadeakaz batera; horretarako, Mankomunitateak autobus bat ipiniko dau. Dana dala, erromes guztiak ez dira autobusean joango, batzuk euren kotxeetan eta beste batzuk oinez joango dira eta. Ganera, Zeanuritik eta Dimatik Urkiolara oinezko ibilaldi gidatuak be prestatu dira.



Arratiar asko hurreratuko da Urkiolara, batzuk kotxeetan edo autobusean eta beste batzuk oinez

Egitaraua

Aurtengo errogatibea “**Ondarea jaso eta jagon**” lemapean egingo da eta kartelak Jon Urutxurturen argazki bat hartzen dau oinarritzat: Urkiolako Santutegia naturan batua. Ondare naturala giza ondarearen kabi.

Hamaikak baino lehentxoago, ongiatorria emongo jake oinez, autobusean edo euren kotxeetan Urkiolara hurreratutako arratiar erromesei. Ondoren, eta aspaldiko usadioa jarraituz, letaniak abestuz sartuko dira erromesak Urkiolako Santutegira, 11:00etan Arratiako abadeak emongo dabenean mezea ospatzeko. Meza ostean, Arantzazuko parrokiak, aurtengo errogatibearen antolatzailea, lemeagaz bat datorren sinbolo bat eskainiko deutsee Urkiolara hurreratu diranei. Eta ekitaldi honegaz egitarauari amaiera emongo jako. Autobusean etorritakoak 13:00etan euren herritara itzuliko dira.



Ibilaldi gidatuak bat Zeanuriko plazatik aterako da, goizeko 07:30etan

Oinezko ibilaldi gidatuak

Igaz legez aurten be Arratiatik Urkiolara joateko ibilaldi gidatuak egiteko aukerea izango da. Orain arte be Dimatik, Igorretik, Areatzatik... hainbat jende joaten izan da oinez Urkiolara, baina aurten Dimatik eta Zeanuritik abiatuz, ibilaldi gidatuak egiteko aukerea izango da, holan, Arratia eta Urkiola lotzen dauzan bide klasikoetako bi ezagutzera emoteko. Urteerak Dimako plazan goizeko 06:00etan izango da eta Zeanuriko plazan 07:30etan.

Aita Juan Jose eta Esteban abadeak gogoan

Meza amaieran Arratiako Eleizeak gogoan izango ditu aurten hil diren abade bi. Aita Juan Jose sakramentinoak urte asko egin ebazan gure artean. Esteban abadeak lau urte be ez, baina oso estimatua izan da. Esker onez gogoratuko dira abade biok aurtengo errogatibako mezatan.

INFORMAZINO GEHIAGO: www.arratia.tk